

Donostiako Protokoloa: eta orain, zer?

Paul Bilbao Sarria

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUko idazkari nagusia

pbilbao@kontseilua.eus

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

Laburpena. 2016ko abenduaren 17an, Europako hogeita hamar hizkuntza-komunitate baino gehiagoko ehunetik gora eragilek adostutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu zen Donostian. Egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzetako hiztunen eskubideak bermatzeko 185 neurriren bilduma. Artikuluan Protokoloaren etorkizuneko lan-ildoak aurkeztuko dira, alegia, aipatu dokumentua Euskal Herri mailan zein Europa mailan tresna eragingarri bihurtzeko zein bide-orri zehaztu den azalduko da. Artikuluan lan-ildo guztietatik nazioarteko instituzioetan Protokoloa erreferentziazko dokumentu bihurtzeko jorratuko duen bideak hartuko du garrantzia. • **Hitz gakoak:** *hizkuntza-eskubideak, gizarte-zibila, ahalduntzea, europa, hizkuntza-politika.*

Abstract. On 16 December 2016, the Protocol to Ensure Language Rights, which had been agreed upon by over one hundred stakeholders representing over thirty language communities, was officially presented to the public in the city of Donostia-San Sebastián. The Protocol is a collection of 185 measures designed to protect the rights of speakers of minoritised languages. This paper outlines the future areas of action, describing the specific roadmap laid out to ensure that the Protocol becomes an effective tool in both the Basque Country and at a European level. The paper will focus particularly on the steps to be taken in order to ensure that the Protocol becomes a reference document for international institutions. • **Key words:** *Language rights, civil society, empowerment, Europe, language policy.*

2016ko abenduaren 17an urte bateko prozesuaren ondorioz adostutako dokumentua aurkeztu genuen Kursaal jauregian: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Hogeita hamar hizkuntza komunitate baino gehiagoko ehundik gora eragilek adostu eta berretsitako ehun eta lau- rogeita bost neurriko dokumentuak argia ikusi zuen goraino betetako Kursaal.

Zalantzarik ez dut erditze luzea izan zuela dokumentuak eta une bazu- etan bai eta mingarria ere, baina prozesu osoari perspektibatik begi- ratuta eta emaitza ikusita merezi izan duela argi dago. Izan ere gizarte eragileok gaitasuna izan dugu egoera desberdinetatik abiatuta gure es- kubideak bermatzeko bide orriak zer nolako ezaugarriak izan behar di- tuen definitzeko.

Halere, KONTSEILUtik nahiko argi genuen hasieratik horrelako prozesu batek ezin zuela amaiera izan dokumentuaren aurkezpenean. Ondorioz, dokumentuaren aurkezpenak hurrengo fasearen hasiera ekarri behar zuen, eta Soziolinguistika Klusterreko lagunen eskaerari erantzunez, saiaturako gara Protokoloaren etorkizuneko proiektzioa, balioa eta urratsak partekatzen.

1. ZER DUGU ESKUARTEAN

I

1.1 Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa

Urte bateko prozesu baten ondorioz, hogeita hamar hizkuntza komu- nitatetako ehundik gora eragilek adostu duten dokumentua da. Arestian esan bezala, Protokoloa 185 neurrik osatzen dute. Neurriok 1996an Bar- tzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak biltzen dituen artikuluekin lotura zuzena dute. Izan ere, Protokoloa osatzeko prozesua horretan oinarritu da; alegia, Deklarazioak jasotzen dituen eskubideak bermatzeko zein neurri hartu beharko lirakeen ze- haztea.

Deklarazioak bezala, Protokoloak ere zazpi eremutan ditu sailkatuak neurriak: Printzipio orokorrak, administrazio publikoa, hezkuntza, eremu sozioekonomikoa, hedabideak eta teknologia berriak, onomastika eta kultura. Horretaz gain, eremu bakoitza azpi-ataletan dago banatuta, eta aitortu behar dugu hori izan dela prozesuan Batzorde Zientifikoak eskatutako ezaugarria. Izan ere, Protokoloa baliagarria baldin bada zer- baiti erantzuten diolako izango da, eta beraz, oso garrantzitsua izan da eremu bakoitzaren azpiko kategorizazioa ahalik eta gehien xehetzea.

**Protokoloak
zazpi eremutan
ditu sailkatuak
neurriak:
Printzipio
orokorrak,
administrazio
publikoa,
hezkuntza, eremu
sozioekonomikoa,
hedabideak eta
teknologia
berriak,
onomastika eta
kultura.**

**Arras
desberdinak dira
egoera
gutxiagotuan
dauden
hizkuntzen
egoera, eta
horrexegatik,
hizkuntza-
komunitateek
zeinek bere
ibilbide-orria
zehaztu behar du,
Protokoloa
erabilgarria izan
dadin.**

Adibide gisa, hona hemen administrazio publikoa eta hezkuntza atalen azpi-sailkapenak:

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK:

- A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN
 - 1 HERRITARREK ZERBITZUAK HIZKUNTZAN GUTXITUAN JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEA BABESTUTA DAGO
 - 2 HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZE
 - 3 KANPOKONTRATAZIOA
 - 4 LEHENTASUNEZKO EREMUJAK: Osasungintza, Justizia eta Polizia
- B. KOMUNIKAZIOA
- C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN EREMUJA

HEZKUNTZA:

- A. HEZKUNTZA FORMALA
 - 1 HAUR-HEZKUNTZA
 - 2 DERRIGORREZKO HEZKUNTZA
 - 3 LANBIDE HEZKETA ETA TREBAKUNTZA
 - 4 UNBERTSITATEA ETA GAINERAKO HEZKUNTZA
 - 5 ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK
- B. HEZKUNTZA EZ FORMALA
 - 1 AISIALDI ZENTROK, KIROL TALDE ETA FEDERAZIOAK
- C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA
- D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA
- E. CURRÍCULUMA ETA MATERIALAK

1.2 Kaiera

Protokoloaren proiektua hizkuntza-komunitate gutxiagotuetako eragileekin partekatu izan denean, ikusi da oso beharrezkoa zela gizarte eragileok geure proposamen bateratua mahai gaineratzea, baina, aldi berean, oso argi ikusi da hizkuntza-komunitate bakoitzari dagokiola horren betetze-mailak nolako izan behar duen definitzea eta zehaztea.

Arras desberdinak dira egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzen egoera, eta horrexegatik, hain zuzen ere, hizkuntza-komunitateek zeinek bere ibilbide-orria zehaztu behar du, Protokoloa erabilgarria izan dadin.

Zalantzarik ez dago hizkuntza baten berreskurapen-prozesua dinamikoa dela, baina arrazoi horregatik ezinbestekoa da epeak zehaztea, prozesuak denboran amaiera izan behar duela irudikatzea ezinbestekoa da. Hartara, berreskurapen-prozesuari so gauden honetan, lehen urratsa hizkuntza-komunitateen eskubideak bermatzea da lehen geltokia, eta Kaierak hizkuntza-komunitatearen esku utziko du epeen denboralizazio hori zehaztea.

Kaiera Protokoloan jasotako neurrien betetze-maila neurtu, aurrera begirako helburuak ezarri eta horien jarraipena egiteko balio duen tresna magua da. Hizkuntza-eskubideak gizarte-esparru espezifiko batean

edo lurralde-eremu zehatz batean bermatzeko lan egiten duten eragileek Protokoloko neurri batzuk bete daitezzen lortzean jarriko dute arreta.

Horregatik, Kaierak bi erabilera eredu izan ditzake:

1. Kaieraren erabileraren eredu integrala legoke. Hizkuntza-komunitate oso baten beharren inguruan lan egiten duen eragile batek, edo hainbat eragilek elkarlanean egingo lukete hau. Hiztunen hizkuntza-eskubide guztiak behatu eta horien bermatze-mailari neurria hartzeko asmoz, Protokoloko neurri guztiakin osatu beharko litzateke Kaiera kasu horretan. Gainera, aukera legoke hizkuntza-komunitate gutxiagotuetao gizarte eragileek neurrien betetzea hurrenkera baten arabera zehazteko.

Izan ere, guztion desioa neurri guztiak epealdian osoki beteaztea baldin bada ere, hizkuntzen egoeren arabera aukera izango da epealdi bakoitzerako bete beharreko neurriak zein izango diren zehazteko.

2. Kaieraren erabileraren eredu partziala legoke. Kasu horretan, gizarte eragileek gizarte-esparru edo lurralde-eremu zehatz bateko neurriei erantzunez erabiltzeko aukera izango dute.

Gizarte eragileek helarazitako ekarpenak lauhundik gorakoak izan dira. Ekarpen horiekin 185 neurri osatu dira, Batzorde Zientifikoari esker. Halere, horiek erdiesteko tarteko urratsak edo neurriak beharrezkoak izan daitezke. Kaiera betetzeko neurri bakoitzaren diagnosis egin behar da, epealdi batean beteko diren neurrien hautaketa zehaztu, neurria betetzeko eskumena duen instituzio edo administrazioa identifikatu eta guztia era ordenatuan planifikatu.

Kaiera taula moduan aurkezten da, gizarte-eragileek modu ordenatuan zehaztu ahal izateko zein diren hurrengo urteetarako erronkak. Taulak honako elementu hauek jasotzen ditu:

A. NEURRIA

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloari dagokion neurriaren zenbakia

B. ADIERAZLEA

Neurri bakoitzari Batzorde Zientifikoak adierazle bat (edo gehiago) esleitu dio.

C. NEURRI HORI BETETZEKO ESKUMENA DUTEN ERAKUNDEEN IDENTIFIKAZIOA

Neurri hori betetzea zein erakunderi dagokion zehaztu beharko da.

Batzuetan eskumen partekatua izango da, eta beste batzuetan neurri bera erakunde desberdinek bermatu beharko dute.

**Kaiera
Protokoloan
jasotako
neurrien betetze-
maila neurtu,
aurrera begirako
helburuak ezarri
eta horien
jarraipena
egiteko balio
duen tresna
malgua da.**

D. BETETZE-MAILA

Neurri bakoitzak adierazle bat du. Diagnostikoan, egun neurri hori zein mailatan betetzen den zehaztuko da,

E. EGIAZTATZE-ELEMENTUAK

Egiaztatze-elementuak neurriak betetze-maila modu objektiboan frogatzeko euskarriak dira.

F. LEHEN EPEALDIA

Neurriak bete daitezten edo haien betetze maila emendatu dadin jarri beharreko helburuek eta eman beharreko urratsek epe zehatzak behar dituzte. Epealdi horretarako hautatutako neurriaren betetze maila noraino emendatu behar den zehaztuko da. Hau da, epealdirako betetze mailaren helburua ezarriko da. Bost urteko epealdia izatea proposatzen da.

F.1. TARTEKO URRATSAK

Kasu batzuetan Protokoloak jasotako neurriak betetzetik oso urrun egon daitezke. Horretarako, neurri bat betetzeari begira, alde aurretik zein urrats hartu beharko litzatekeen zehaztu daiteke.

G. BIGARREN EPEALDIA

Lehen epealdirako prozedura bera erabiliko da. Hamar urteko epealdia izatea proposatzen da.

NEURRIA	ADIERAZLEA	ERAKUNDEA	BETETZE-MAILA	EGIAZTATZE-ELEMENTUAK	LEHEN EPEALDIA	BIGARREN EPEALDIA
					TARTEKO URRATSAK	
10	HGari lehenasuna alortzen dion airurik ba al dago? (B/E)					
11	HGren ezagutza umbersatatzeko plangintza edo programarik ba al dago, bereziki hezkuntzan?(B/E)					
12	Hizkuntza ikuspegia aplikatzen den departamentuen ehunekoa. (%)					

2. ETORKIZUNARI BEGIRAKO ILDO NAGUSIAK

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak berak ezarri du zein diren etorkizunerako ildo nagusiak. Zortzigarren artikulua arabera, abenduaren 17tik aurrera Protokoloaren lanketarekin jarraitu ahal izateko Jarraipen Batzordea eratu da. Proiektuaren jatorrizko eta oinarritzko espirituari jarraiki, Batzordea gizarte eragileek osatuko dute. Halaber, lehen Batzordea Protokoloa bideratu duen Talde Antolatzaileko eragileek osatuko dute, hain zuzen ere, CIEMEN, ECMI, ELEN, LINGUAPAX, PEN INTERNATIONAL eta UNPO erakundeek; eta Batzordearen idazkaritza lanak KONTSEILUak berak egingo ditu.

Horrekin batera bost funtzio nagusi ezarri zitzaizkion Batzordeari, eta funtzio horiek dira, hain zuzen ere, etorkizunari begirako lan-ildo nagusiak:

2.1 Gizarte eragileak Protokoloari atxikiaraztea

Protokoloaren prestatze-prozesuan helburu bat ezarri genion geure buruari, hain zuzen ere, ahalik eta hizkuntza-komunitate gutxiagotu gehienekin harremanak egitea egoera desberdinetan oinarritutako ekarpenak jasotzeko. Hartara, helburua ez zen izan eragile kopuru altua erdiestea, aitzitik, egoera desberdinetarako baliagarria izango zen tresna nahi genuen, eta beraz, hizkuntza-kopuruari erreparatu zitzaion. Gainera, lehen fase horretan Protokoloarekin bat egiten zuten eragileok dokumentua bere sentitzea nahi genuen, eta guztien ekarpenak txertatzeko ahalegina egin zen.

Hona hemen lehen fasean ordezkaturik dauden hizkuntza-komunitateak:

Alsaziera	Frisiera	Katalana
Aragoiera	Friulera	Kornubiera
Aromaniera	Galesa	Korsikera
Asturiera	Galiziera	Ladiniera
Behe saxoiera	Galoa	Oil hizkuntzak
Bretoiera	Hungariera	Okzitania
Eskoziako gaelikoa	Irlandera	Sardiniera
Esloveniera	Kareliera	Tatarera
Euskara	Kashubiera	Voro

Orain, bigarren fase bati emango zaio hasiera, eta ondorioz, Jarraipen Batzordeak lan egingo du hizkuntzen alde lan egiten duten gizarte eragile gehiagok sina dezaten Protokoloa.

2.2 Protokoloaren inplementazioa barne politiketan

Hauxe izango da Protokoloaren baliagarritasunik handiena, hain zuzen ere, hizkuntza bakoitzaren egoerara ekartzea eta, horren arabera, Protokoloak biltzen dituen neurriekin eta adierazleekin hizkuntza-eskubideak bermatzeko urratsak eta horien hurrenkera nahiz tempusak zehaztea.

Hori betetzeko, lehen urratsa hizkuntza-komunitate bakoitzak arestian aipatutako Kaiara prestatzea izango da. Modu horretara Protokoloak bere translazioa izango du hizkuntza gutxitu bakoitzera eta eguneroko politiketan eragiteko balio izango du.

Zalantzarik ez dugu herritarrengandik hurbilen dagoen instituzioa eta, ondorioz, Protokoloa barne politiketan inplementatzeko errazen egin dezakeen instituzioa udala dela. Horrexegatik, hurrengo hilabeteotan lanketa berezitua egingo da Protokoloak biltzen dituen 185 neurri ho-

Protokoloaren prestatze-prozesuan helburu bat ezarri genion geure buruari, hain zuzen ere, ahalik eta hizkuntza-komunitate gutxiagotu gehienekin harremanak egitea egoera desberdinetan oinarritutako ekarpenak jasotzeko.

Ikusi dugu hizkuntzen egoera ez ezik, hizkuntzen berreskurapenaren alde lan egiten duten eragileen egoera ere oso desberdina dela Europan zehar. Protokoloaren bidez guztiontzako bilgunea sortu nahi dugu hizkuntza-komunitate bakoitzak jorratutako proposamenak elkarrekin trukatzeko.

rietatik udalen zuzeneko edo zeharkako eskumena zein diren zehazteko. Urteetan zehar egiaztatu ahal izan du euskalgintzak, bai eta egoera guxtiagotuan dauden beste hizkuntza-komunitateetako eragileek ere, aukera handiagoak izan direla udaletako hizkuntza-politiketan eragiteko. Gainera, gure eguneroko bizitzan udalekin ditugu harreman gehienak, hortaz, udaletako hizkuntza-politiketan eragiteko tresna bihurtuko dugu Protokoloa, eta horretarako, Udal Kaiera delako dokumentua sortuko dugu.

2.3 Kaieren bateratzea eta partekatzea

Gizarte eragileek Kaiera betetzen dutenean, horren ale bat Jarraipen Batzordeari helaraziko diote. Jarraipen Batzordeak horiek baliatuko ditu beste hizkuntza-komunitate batzuetako eragileei Kaierak prestatzen laguntzeko.

Uste dugu Protokoloa elkartasun linguistikoaren adibidea izan dela, eta gerora ere, nahiko genuke elkartasun horrekin jarraitzea. Ikusi dugu hizkuntzen egoera ez ezik, hizkuntzen berreskurapenaren alde lan egiten duten eragileen egoera ere oso desberdina dela Europan zehar. Horrela, Protokoloaren bidez guztiontzako bilgunea sortu nahi dugu hizkuntza-komunitate bakoitzak jorratutako proposamenak elkarrekin trukatzeko.

Euskarari dagokionez, Kontseiluak erantzukizunez jokatu nahi du. Egia da, bai, euskararen kaiera eredugarria izatea nahi dugula, eta horrexegatik Kontseiluak Kaiera hori betetzeko prozesu partehartzaile zabala egingo du 2017an zehar. Horrela, euskalgintzako eragileez gain hizkuntzaren normalizazio-prozesuan zeresana eta zeregina izan dezaketen gizarte eragileak ere Kaieraren prestakuntzara ekarri nahi ditugu.

Kaierak ibilbide-orri bat eskainiko du, alegia, neurri guztiak bete daitezzen epemuga zehatza. Gainera, Kaiera alor guztietako eragileen arteko ariketa izango da, eta aukera emango du elkarrekin hitz egin, hausnartu eta bidea jorratzeko.

2.4 Protokoloaren aitortza instituzioetan

Gizarte eragileek tokiko, eskualdeko, erregioko edo Estatuko instituzioetan Protokoloari aitortza emateko egingo duten lanketaren jarraipena egingo du Jarraipen Batzordeak. Halaber, Protokoloari aitortza egiten dioten toki, eskualde edo estatu mailako instituzioen zerrenda gaurkotuko du.

Epe laburreko estrategiari dagokionez, Protokoloaren aitortza udaletatik etorriko delakoan gaude, eta hor kokatzen dugu, aurreko atalean azaldu

bezala, udaletako kaiera. Horrela, lehen helburua Europako udalek Protokoloarekin bat egin eta beraien eskumenei zuzenean zein zeharka lotzen zaizkien neurriak betetzea izango da. Horixe da, zalantzarik gabe, Protokoloak instituzioetan izan dezakeen aitortzarik handiena.

Halere, epe luzeagoko estrategiari ere hasiera emango zaio aurten, eta hor kokatzen da Estatu mailako edo autonomia-erkidego mailako gobernu batzuek Protokoloa bere egitea.

Behin eta berriro adierazi dugu Protokoloak ez duela inolako balio juridikorik edota loteslerik. Halere, kontuan hartuta Protokolora iristeko egin den bidea eta egun duen sostengua, balio sinboliko eta politiko handiko dokumentua dela uste dugu. Milioika hitzunen interesak defendatzen dituzten eragileek prestatutako proposamena da eta, beraz, erakundeek kontuan hartu beharrekoa.

Egun, gero eta zabaldago dago *smart policies* direlakoan eredu, hain zuzen ere, ingurumen-, zerbitzu- eta ekonomia-erronkei aurre egiteko politika berritzaileak abian jartzea. Protokoloa bertan kokatu nahiko genuke, izan ere, Protokoloaren araberako politika garatzeak bi ondorio nagusi duela ikustaraztea da gure erronka. Batetik, gizarte eragileen eskaeretan oinarritzen den politika egiten duen gobernu-eredua balio-estea; eta, bestetik, gizarte justuagoa edo orekatuagoa erdiesteko hizkuntza-eskubideen bermea lehentasunetan kokatzen duen gobernu-eredua aupatzea.

Egia da, honez gero, lehen urratsak egin direla gobernu batzuekin, baina modu diskretuan garatzen ari den ildo da.

2.5 Protokoloaren legitimazioa nazioarteko instituzioetan

Protokoloaren arabera, Jarraipen Batzordeak lanketa iraunkorra egingo du Protokoloari nazioarteko instituzioetan legitimazioa aitortzeko, bai eta erreferentziako dokumentu bihurtu dadin ere.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu sinatu eta jarraian Protokoloaren eta Kaieraren ale bana igorri zitzaizkion Nazio Batuen Erakundeko, Europako Kontseiluko eta Segurtasun eta Lankidetzarako Europako Erakundeko goi arduradunei. Halaber, Protokoloa prestatzerakoan Bartzelonako Deklarazioa oinarri nagusia izan bada ere, hiru erakunde horietako oinarritzko itunak ere izan dira erreferente, eta beraz, orain dokumentu horien eta Protokoloaren arteko uztarketa nola egin zehaztu beharko dugu.

Lehen helburua Europako udalek Protokoloarekin bat egin eta beraien eskumenei zuzenean zein zeharka lotzen zaizkien neurriak betetzea izango da.

**Kontuan izan
behar dugu
sinatu eta
jarraian
Protokoloaren
eta Kaieraren ale
bana igorri
zitzaizela Nazio
Batuen
Erakundeko,
Europako
Kontseiluko eta
Segurtasun eta
Lankidetzarako
Europako
Erakundeko goi
arduradunei.**

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA

Protokoloa erreferentziazko dokumentu bihurtzeko ibilbidean Nazio Batuen Erakundea ez da lehentasunetan jarri, hain zuzen ere, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak bide hori hartu baitzuen lehenbizi, eta, tamalez, bidea aski arin itxi egin zioten.

Gogoratu behar dugu 1996an Deklarazioa onartu zenean, azken helburua NBEko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren eranskin bihurtzea zela. Deklarazioa sinatutakoan UNESCO erakundeko idazkari Federico Mayor Zaragozari helarazi zitzaion. Gizarte zibilak UNESCOren mahai gainean instituzio horretan lanerako ildo gisa hizkuntza eskubideak kontuan hartu beharra eta abiapuntu gisa Bartzelonako Deklarazioa kontuan hartzeko eskatu zion. Izan ere, prozesuaren azken helburua oso argia zen: UNESCOk gomendioa egin ziezaiola Nazio Batuen Erakundeko Asanblada Orokorrari Hizkuntza Eskubideen Nazioarteko Ituna bere egiteko edota Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren osagarri gisa onartzeko.

Lehen bi urteetan aurrerapauso interesgarriak izan ziren. Horrela, Hizkuntzen barrutia sortu zen, edota Mayor Zaragozaren agintearen azken urtean Hizkuntza Aniztasunaren Batzorde Kontsultiboa eratu zen. Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren Jarraipen Batzordea haiekin bildu eta Deklarazioaren azterketa eta hizkuntza eskubideei buruzko testu berri baten prestakuntza helburutzat hartu zuen Batzordeak.

Hala ere, Koichiro Maatsura jaunak Mayor Zaragozaren ardura hartu zuenean, gauzak zeharo aldatu ziren. Batetik, Hizkuntzen Barrutia desagertu zen ustezko arrazoi ekonomikoengatik eta interlokuziorik ez da izan ordutik UNESCOrekin. Estatu askok UNESCOren aurrean adierazi zuten hizkuntza-eskubideen dimentsio individuala eta kolektiboa biltzen zituen edozein dokumentuk deserosotasunak sortzen zituela, bai eta hizkuntza guztien berdintasuna aldarrikatzen zuen edozerk ere. Estatu asko ez zeuden prest horrelako dokumenturik onartzeko, izan ere, HEDU Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren bete beharreko eranskin bihurtuz gero, haiei egokituko bailitzaieke hori betetzea.

Horrexegatik Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloarekin antzeko biderik abian ez jartzeko erabakia hartu da; izan ere, ez da aukera errealik ikusten izaera honetako dokumentu bat nazioarteko araudian bere horretan kokatzeko.

Hartara, NBEen egin beharreko lanketari dagokionez, lehenik eta behin alde biko dinamikari ekingo zaio, eta horretarako, Gutxiengoen Afere-

tarako Aditu Independenteari Protokoloa aurkeztuko zaio. Uste dugu Protokoloak jasotzen dituen neurriak arras egokiak direla 1992ko Gutxiengo Nazional, Etniko, Erljiioso eta Linguistikoen Eskubideei buruzko Aldarrikapenarekin lotzeko. Protokoloak Aldarrikapenak biltzen dituen eskubideak bermatzeari begirako bide-orria irudikatzen du, eta, beraz, dokumentuaren aitortza bide horretatik jorratu behar delakoan gaude.

EUROPAKO KONTSEILUA

Europako Kontseiluari lotzen gatzazkionean, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena datorkigu lehenik eta behin burura. Halere, zaila izaten da hizkuntza-eskubideen afera modu egokian kokatzea aipatu hitzarmenean.

Halere, biziki interesgarria da 2014an onartutako 1985. ebazpena, Europako gutxiengo nazionaleri eta eskubideei buruzkoa. Bertan, Asanblada Parlamentarioak jasotakoak bat egiten du oso-osoki Protokoloak biltzen dituen printzipio nagusiekin. Horrela, gutxiengoaren eskubideen aldeko babesak Europa jasangarria eraikitzen laguntzen duela adierazi zuten, bai eta duintasuna, berdintasuna edota bereizkeria-eza bermatzeko lagungarria dela ere. Are gehiago, gutxiengoaren babeserako jarrerak gatazkak saihestu ditzaketela adierazi zuen, eta Protokoloa hizkuntza-bakea, *pax linguae*, erdiesteko tresna gisa aurkeztu izan da.

Historikoki Europako Kontseiluko bi itun nagusi izan dira hizkuntza gutxiagotueta herritarren eskubideekin lotu izan direnak, nahiz eta, berariaz, hizkuntza-eskubideak ez diren jasotzen horietako batean ere: Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa eta Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Ituna (Euroituna).

Europako Kontseiluari dagokionez, egia da, bai, borondatea egotera, aukera errealak egon daitezkeela eta badaudela egun indarrean dauden tresnak Protokoloarekin uztartzeko. Eta, esan behar dugu, ildo hori zabaldu berri duela Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Estrasburgon eta aurreikusten dugu urte amaierarako Protokoloak aplikazio-eremu zehatzak izan ditzakeela Europako Kontseiluak abiarazitako zenbait itunetan, bereziki, Euroitunean.

Modu arinean gogoratzearen, Euroituna berretsi duten Estatuak bertan jasotako hainbat neurri bere egin behar dituzte, eta horiek bete. Itunak berak ezarrita duen ebaluazio-sistema baten bidez, hiru urtero betetze-maila neurtzen du aditu-batzorde batek. Batzorde horrek prestatutako txostenean oinarrituta Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak gomendioak egiten dizkie Estatuari.

NBEn egin
beharreko
lanketari
dagokionez,
lehenik eta behin
alde biko
dinamikari
ekingo zaio, eta
horretarako,
Gutxiengoaren
Aferetarako
Aditu
Independenteari
Protokoloa
aurkeztuko zaio.

**Estrasburgon eta
aurreikusten
dugu urte
amaierarako
Protokoloak
aplikazio-eremu
zehatzak izan
ditzakeela
Europako
Kontseiluak
abiarazitako
zenbait itunetan,
bereziki,
Euroitunean.**

Prozesu horri guztiari Euroitunaren monitorizazioa deitzen zaio, baina ez da benetan Euroitunaren betetze-mailaren jarraipen iraunkorra. Bigarren funtzio hori betetzeari begira Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Kaiera erabilgarria izan daitekeela ondorioztatu dute Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluko eta Europako Kontseiluko ordezkariak.

Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Itunaren idazkaritzako buruak esan izan du hainbatetan ikusi dutela gomendioak behin eta berriro errepikatzen zaizkiela Estatuei, eta, ondorioz, ebaluaziotik ebaluaziora ez dela aurrera egiten. Hori bi arrazoiengatik gertatzen da; batetik, Estatuak ez dutelako benetako borondaterik Ministroen Batzordetik egindako gomendioei erreparatzeko, eta, bestetik, benetan ez dakitelako zein urrats egin dezaketen aurrera egiteko. Horrexegatik eta horretarako Protokoloa arras erabilgarria litzateke, izan ere, gizarte eragileek honez gero onartu duten dokumentu horretatik bide-orria presta liezaiokete Estatuari ebaluaziotik ebaluaziora bete beharreko neurriak proposatzeko.

Zalantzarik ez dago, Euroitunak aldaketak behar dituela. Hurrengo urtean, hogeita bost urte beteko ditu itunak eta elementu positiboak izan baditu ere, ahots gehienek diote, ahots gehienok diogu, buelta berri bat eman beharko litzaiokela dokumentuari. Halere, jakin dakigu etorkizun laburrean horrelakorik ez dela izango. Dena den, Euroituna bera aldaketuko ez den arren, horri buruzko interpretazioa edota Euroituna betetzeko gomendioen zerrenda egitea bai izan daiteke hogeita hamargarren urteurrenari begira egin daitekeen ariketa.

Lehen esan bezala, Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak eta Euroituneko arduradunek bide hori jorratzea erabaki dute, eta Itunaren hogeita hamargarren urteurrenari begira antolatuko den kongresuan ekarpena aurkezteko konpromisoa hartu dute aldeek.

EUROPAKO BATASUNA

Egia da, bai, Europako Batasunaren ikurrirtza *Aniztasunean bat eginik* dela. Gutxiengoetako kide diren pertsonen babesa Europako Batasuneko oinarrizko balorea dela esaten dute, eta halaxe dago jasota Europako Batasuneko Ituneko bigarren artikuluan. Itun bereko hirugarren artikulua Europako Batasunak hizkuntza-aniztasuna errespetatuko duela azaltzen du. Horrekin batera, Europako Batzordeak ere behin baino gehiagotan azpimarratu izan du erregio, gutxiengoaren edo arriskuan dauden hizkuntzak babestearen garrantzia, Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Itunaren 21 eta 22. artikuluek jaso bezala. Lehenak hizkuntzarengatik diskriminazioa debekatzen du; bigarrenak, aldiz,

hizkuntza-aniztasunaren errespetuari egiten dio erreferentzia. Hartara, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa tresna interesgarria izan liteke artikuluko horien betetzeari laguntzeko.

Halere, Europako Batasunak printzipio horiek bere egiten baditu ere, praxian ez du inolako ondoriorik Estatuek hizkuntza-kudeaketan erakusten dituzten jarretan. Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Itunaren 51. artikulua araberak Batzordeak ez du eskumen orokorrik gutxiengoan edo gutxiengoan hizkuntzen erabileraren aitortzarekin lotutako kontuekin. Ondorioz, Estatuek dute eskumen osoa gutxiengoan hizkuntzen egoera juridikoa definitzeko, bai eta hizkuntza-eskubideak aitortzeko ere.

Zalantzarik gabe horrek zailtzen du Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa bere horretan dokumentu erabilgarri izatea Europako Batasunaren mailan. Zaildu egiten du, izan ere, Estatuei haien hizkuntza-politikan aldaketak egiteko eskaerak ezin egin daitezkeelako Europatik. Halere, horrek ez du esan nahi Protokoloa erreferentziatzeko dokumentu izateko lanketa geratu behar denik.

Horrexegatik, eta jakinki Europako Batzordetik ez dela Estatuek aurrera daramatzaten hizkuntza-politikak bideratzeko edo zuzentzeko ezelango arteztaraurik edo bestelako erregelamendurik garatuko, gure lana bereizkeriarik gabeko eta aniztasunaren kudeaketa egokia sustatzeko tresna bat badela gogoraraztea izango da. Horretarako, lehen urratsa, Europako Batasuneko parlamentarioekin lan-saio bat antolatzea izan da Gutxiengo Tradizionalen, Komunitate Nazionalen eta Hizkuntzen Taldeko parlamentarioei tresnaren berri emateko.

Aipatu lan-saioan gogorarazi zaie haien funtzioa ere badela egun Europako Batasunetik hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa desegokia egiten duten gobernuen kritika publikoa egitea, eta proposatu egin zaie modu bateratuan politika egokiak garatzeko tresna gisa Protokoloa aurkeztea.

Horren adibide gisa, 2013ko irailaren 11ko Europako Parlamentuko Ebazpena jarri genuen mahai gainean, hain zuzen ere, EBko hizkuntza-aniztasunari eta arriskuan daude Europako hizkuntzei buruzkoa. Aurrera begira horrelako ekimenak abian jartzekotan, Protokoloa hizkuntza-politika egokiak burutzeko tresna gisa aurkezteko eskaera egin zitzaion, eta halaxe egingo dutela adierazi zaigu. Kontuan hartu behar dugu aipatu Ebazpena Parlamentuaren %92ko babesa izan zuela, eta beraz, Protokoloan agertzen diren neurriak aipatu Ebazpenak jasotzen dituen eskaerak aurrera eramateko bide praktikoa gisa balia daitezkeela ondorioztatzen dugu.

Europako Batzordeak behin baino gehiagotan azpimarratu izan du erregio, gutxiengoan edo arriskuan dauden hizkuntzak babestearen garrantzia, Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Itunaren 21 eta 22. artikuluek jaso bezala. Lehenak hizkuntzaren-gatiko diskriminazioa debekatzen du; bigarrenak, aldiz, hizkuntza-aniztasunaren errespetuari egiten dio erreferentzia. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa tresna interesgarria izan liteke artikuluko horien betetzeari laguntzeko.

3. AZKEN HITZA

I

Egia esan behar badugu, artikulu nahiko bitxia prestatu dugu oraingoan BAT aldizkarirako. Protokoloa abenduan sinatu, eta urtarrilean egin zitzaigun eskaera etorkizuneko ildoet buruzko zerbait idazteko. Eta, egia esan, Kontseilua aste horietan ari zen Protokoloaren etorkizunari buruzko lehen zirriborroak prestatzen Jarraipen Batzordeari aurkezteko.

Horrexegatik, prestatu dugun artikuluak badu behin-behinekotasun handia plangintzaren lehen urratsak besterik ez dituelako jasotzen. Halere, lehen esan bezala, Protokoloak berak zortzigarren artikuluan zehazten zuen etorkizuneko lan-ildoek nondik jo beharko luketen, eta artikulu hau prestatzeko ildo bakoitzaren inguruan egindako lehen hausnarketa, lehen urratsak eta aurreikusten den bidea laburtzen saiatu gara.

Zalantzarik ez abenduaren 17ko Kurasaaleko argazkiak indarrez bete gintuela eta inflexio-puntua egina zegoela iruditzen zitzaigula, eta ordutik hiru hilabete joan diren honetan gero eta argiagoa dugu Protokoloak etorkizun handia eta oparoa izango dituela, eta horrexegatik erabaki zuen Kontseiluak etorkizun hori ahalik eta lasterren marrazten hastea. ●